



IRIMOGAINE: INFORMAZIOA BULETINA

Lehenik eta behin, ongi etorriak izan zaitetze Irimogainera eta mila esker zuen parte hartzeagatik.

Badirudi eguraldia alde izango dugula; gure jardunaldian zehar ez du euririk egingo eta tenperatura epelek lagunduko digute.

Jarraian, zenbait ohar gogorarazi eta gomendio batzuk zehaztuko dizkizuet:

- Parte hartzaile asko zaretenez, izen emate tramiteak burutzeko Ederrena frontoira garaiz iristea eskertuko nizueke.
- Izen emate mahaiaren irekiera ordutegia **8:30**tara aurreratuko dugu. Berriro ere gogorazten dizuet: ez utzi azkeneko momenturako. Frogaren hasiera 10etan izango da eta bestela presaka ibili beharko zarete, azalpenak galdu...
 - **4 orduko** kategorian parte hartu eta **pintza alokatu** duzuen partaideok, lehen ordurako bertan egon beharko zarete **(8:30tan)**
 - 4 orduko kategoria eta norbere pintzarekin edo 3 orduko kategoria (denak), 8:45tan
 - Familiak, 9:00tan
- **Partaide orok**, Sportident pintza alokatu duelarik edo ez, **izen emate postutik pasa beharko** du froga hasi baino lehen, bukaeran izango den anoa postuan trukatu duen **eskumuturreko bat jasotzera**.
- Gogoratu Sportident pintza jasotzeko fiantza moduan NANA utzi beharko duzuela.
- Mendi federakuntzako aseguruak duzuenok federatu txartela erakutsi beharko duzue.
- Frontoian, motxilak uzteko biltoki bat egongo da eskuragarri. Ordutegia:
 - Uzteko, 8:30tik a 9:30ak arte
 - Jasotzeko, 13:00tik a 15:00ak arte
- Aurtengoan, froga aurreko solasaldia (briefing) sekula baino garrantzitsuagoa izango da, frogarako informazio interesgarria emango dugulako. 2017ko Irimogaineko maparen ezustekoak aurkeztuko ditugu. 9:20tan hasiko da.
- Aldiri kiroldegian dutxak irekita egongo dira 15:00tatik aurrera.
- Erlojua. Oso garrantzitsua geratzen zaigun denbora kontrolatzeko. Gogoratu berandu helmugaratzeak penalizazioa dakarrela eta puntuak galduko ditugula.
- Mendia zoragarri dago, hala ere badaude sasidun tartekak eta horregatik praka luzeetan edo belaunetarainoko galtzerdi luzeekin parte hartzea gomendatzen da.

- Frogaren web orrian azalduta dagoen bezala, helmuga posturarte ez dago inolako anoa punturik mapan zehar: Edaria eta jateko zerbait eramatea gomendagarria litzateke.
- Ibilbidean zehar zenbait iturri daude (bi kategorietan). Mapan hurrengo irudiarekin bereiztuko dituzue:



- Irimon aldapa politak daude eta horrexegatik bastoi bat (edo bi, norberaren gustura) eramatea ere lagungarri izan liteke zenbait puntutan.
- Frogan zehar posible da errepide zati bat erabiltzea, KONTUZ! Errepidea ez da trafikoari itxita egongo eta ez dugu inolako lehentasunik izango. Trafiko arauak errespetatu behar ditugu.
- Txakurrekin zatoztenek lotuta eraman beharko dituzue. Inguruan baserri eta ganadu ugari dago.
- Gogorarazi nahi dizuegu debekatuta dagoela zelai, belardi edo sail pribatuak zeharkatzea.
- Puntu banaketa sistema:
 - Dakizueenez, kontrol puntu bakoitzak puntuazio desberdina dauka bertara iristeko eskatzen duen zailtasun tekniko edo fisikoaren arabera.
 - Mapan, honakoa topatuko duzue:
 - Kontrolaren zenbakia
 - Nabarmendutako zenbakiak puntuazioa adierazten du
 - Kasu honetan 5 puntu



- Baliza guztiak ez dira bi kategorientzeko, beraz ondo begiratu beraien zenbakia.
- 4 orduko mailaren irteeraren ondoren, orientazio mapari buruzko azlpen labur bate mango dizuegu 3 ordukoiei.
- Azkenik: irteera Iparragirre plazan izango da; danok batera joango gara frontoitik (minutu 1).

Igande goizerarte!!! Ondo izan!!!

